

ESKOLAZ KANPOKO

E K I N T Z A K

2023 - 2024





PSIKOMOTRIZITATEA



- Ikastolako psikomotrizitate gelan garatuko dira saioak.
- Inguruarekin erlazionatzeko aukera, mugimendu eta jolas askearen bitartez.
- Nortasuna eta auto-pertsona irudia eraikitzeko lagungarri.
- Segurtasunean, bere erronkak aurrera eramaten dituen biziko duen poztasunekin gozatuz eta ezinegonei aurre eginez.

AURREKIROLAK



- Jarduera fisikoarekiko atxikimendua helburu.
- Motibazioa, gozamena eta esperientzia atsegina bide.
- Jolasak eta jokoak oinarri.
- Lankidetzaz eta aurkaritzaz egoerak bai. Lehiarik ez.
- Hilabetero bitopaketa, hamabost egunetik behin.



KIROL ANITZA



- Kirol ezberdinen hastapena eta praktika motibagarria.
- Talde Kirolak zein Banakako Kirolak era ludikoan. Kirol alternatiboak.
- Espezialitatea aukeran: Saskibaloia / Euskal Pilota / Futbola / Boleibola / Gimnasia erritmikoa / Eskalada
 - Astean egun bat aukeratutako espezialitateko entrenamendua.
 - Beste egunean kirol anitzak txandakatu.
- 6/8/10 partehartzaile.
- Hilean bi larunbatetan Topaketak.

LH
3-4

IRRISTAKETA HASTAPENA

LH
5-6




- Irristaketa ikastaroa maila ezberdinetarako. Hastapenetik, trebezia bereganatuz, jolasen bitartez...
- Kaskoa eta babesak (belaunetakoak,...) erabiltzea ezinbestekoa da.
- Bakoitzak bere patinak ekarri beharko ditu.
- Ikastolako frontoian eta Zaldiaran patioan.
- Hastapena LH 3-4 mailakoentzat.



ZIRKUA

- Haurrak zirkuaren mundura hurbilduko dira eta **zirkuko modalitate desberdinak** landuko dituzte (**malabarismoak, orekak, akrobaziak eta aireko akrobaziak**, besteak beste). Zirkuaren munduko oinarritzko nozioak ikasi ostean, haurrak sormen-prozesu batean murgilduko dira, **Zirko Txiki** izeneko **zirku-ikuskizun bat** egiteko. Horretarako, beste hainbat alorretako ezagutzak jasoko dituzte: makillajea, jantziteria, attrezzoak, antzerkia, clowna, globoflexia eta dantza.
- Zirku-jarduerak kontzentratzeko gaitasuna, pertseberantzia eta diziplina suspertzen ditu. Gainera, karisma, autoestimua, bakoitzaren barneko poztasuna eta lan egiteko gogoak areagotzen ditu.
- **Kirola den heinean**, gure gaitasun psikomotorrak, indarra eta erresistentzia areagotzen ditu. Ez soilik fisikoki, baita mentalki ere. **Bestalde, arte gisa** dituen alderdiak kontuan hartuta, zirkuak haurren sormena, irudimena eta adierazmena sustatzen ditu.





ARETO FUTBOLA

LH
5



- Ordu erdi Ariznabarrako zelairaino joateko eta ekipazio aldaketarako (entrenatzailearekin batera).
- Ordu bateko kirol praktika.
- Partiduak larunbat goizetan.

FUTBOL 8

DBH

LH

6



SASKIBALOIA

DBH

LH

5-6

BATXI




- Ordu erdi Ariznabarrako kiroldegiraino desplazamendu eta ekipazio aldaketarako (entrenatzailearekin batera).
- Ordu bateko kirol praktika.
- Partiduak larunbat goizetan / BATXI: larunbata/igandea.



BOLEIBOLA



- Ordu erdi Zabalganako kiroldegiraino joateko eta arropa aldaketarako (entrenatzailearekin batera) / BATXI: Aranalden ere bai.
- Ordu bateko kirol praktika.
- Partiduak larunbat goizetan.





ESKUPILOTA

LH
5-6



- Ordu erdi Ogetako pilotalekuraino joateko eta arropa aldaketarako (entrenatzailearekin batera).
- Ordu bateko kirol praktika.
- Partiduak larunbat goizetan.

DBH

BATXI



- Adin ezberdinetako neska-mutilek elkarrekin egingo dituzte entrenamenduak.
- Partiduak adin eta sexuaren arabera jokatuko dituzte.
- Partiduak larunbat goizetan.



ZESTAPUNTA

LH
5-6



- Kirola praktikatzeko behar den materiala Gasteiz Jai Alai taldeak jarriko du.
- Ordu bateko kirol praktika.
- Partiduak larunbat goizetan.



GIMNASIA ERRITMIKOA



- Ariznabarrako kiroldegian edo ikastolan bertan.
- Gimnasia erritmikoaren hastapenak eta trebakuntza.
- Norbere gorputzarekin eta kirol honetako osagai eta material ezberdinekin gozatzeko aukera.



ESKALADA




- Ariznabarrako polikiroldegian.
- Eskaladaren hastapenak egingo dituzte.



EUSKAL DANTZAK



- Euskal ohituren ezagutzaz, dantzatzeko eta disfrutatzeko momentuak.
- Jaietan eta dantza plazetan dantzatzeko oinarritzko ezagutzak.
- Euskal dantzen jatorria eta historiaren ezagupena.





BERTSOLARITZA



- Euskal kultura modu sortzaile eta aktibo batean bizitzeko aukera ematen du.
- Bertsolaritzaren ezagutzan sakondu eta hizkuntza lantzeko aukera ematen du, modu ludikoan eta erakargarrian.
- Metodologia dinamikoa. Ohiko klaseen errutina apurtzen du.
- Haur eta gaztetxoenen sormenari bidea ematen zaio.
- Haurrek sentimendu, kezka eta ametsak barru-barrutik adierazten dituzte.

LH

3-6

DBH

BATXI



TRIKITIXA



- Euskal Herriko kulturaren eta instrumentuen ezagutza.
- Trikitixarekin lehenengo kontaktua edo trebakuntza.
- Euskal Herrian tradizionalak diren abestien lanketa: Axuri Beltza, Zazpi Jauzi, Handitzen...
- Ondo pasatzeko eta aldi berean musika ikasteko aukera.

LH

3-6

DBH

1-2



ESKULANAK

LH

1-4



- Eskulan anitzak eta dibertigarriak.
- Haurren sormen gaitasuna lantzeko bide.
- Kontzentratzeko gaitasuna eta psikomotrizitate finaren lanketa, besteak beste.



HH


4-5

LH

ROBOTIKA



- **Robotika Hezitzailea** jolasaren bidez ikastea proposatzen duen ekintza da.
- Oso erreminta eraginkorra gaitasunak garatzeko, bokazio teknologikoak sustatzeko eta curriculum arloan erreminta transbertsal gisa erabiltzeko.
- Taldearen ezaugarriak eta saio bakoitzak kontuan hartuta, hobeto egokitzen den robota eta material pedagogikoa erabiliko da.



SUKALDARITZA



- Arreta-gaitasuna eta pazientzia hobetuko dute.
- Trebetasun finak hobetuko dituzte.
- Sormena eta irudimena garatuko dute, km0 elikagaiak eta elikadura osasungarria ezagutuko dute, autonomia sustatuko dute...
- Ikasgaietan ikasitako jakintzak zeharka erabiliko dituzte, kopuruak neurtu, osagaiak zatitu eta abar egin beharko baitute.
- Modu dibertigarri eta atseguinean arituko dira.





MAHAI JOLASAK

HH

4-5

LH

1-3



- Mahai jolasak hezkuntza-erraminta bihurtuko dira, ikuspegi ezberdinetatik lan egiteko.
- Hurrek arreta, memoria, trebetasun matematikoak, linguistikoak eta emozionalak eta koordinazioa, besteak beste, landuko dituzte.
- Jolasen bidez, bizitza errealean ematen diren egoerak ikusiko dituzte, eta haiei aurre egiten ikasiko dute.

SCAPE ROOM

LH

4-6

- Ekintza honen bidez, ikasleak zenbait trebetasun landuko ditu: logika, ezagutza matematikoa, linguistikoa, historikoa...
- Talde-lanean arituko dira jokoak eta igarkizunak ebazteko.



MEKANOGRAFIA

- 
- Ikastolen Elkartean garaturiko **Hatz10** web aplikazioari esker, teklatua modu zuzen eta eraginkor batean erabiltzen ikasten da euskarari berebiziko garrantzia emanaz.
 - Aplikazioa taldean edo bakarka erabiltzeko aukera dago. Norberak, inoren laguntzarik gabe, Hatz10ek eskaintzen dituen eduki eta tutorialak jarraituz, mekanografia ikas dezake etxetik ere.
 - Mekanografia ikastaroan izena ematearekin **Hatz10** aplikaziorako lizentzia eskuratuko duzue. Horrekin, nahi duzuen guztietan etxetik praktikatzeko aukera izango duzue ikasturtean zehar. Horrez gain, era presentzialean praktikatzeko bi aukera eskaintzen ditugu: goizetan edo eguerdietan.



mondragon**Lingua**
formación/prestakuntza/training



HH

4-5

LH

INGELESA

HH + LH 1-2

- Ahozketasuna
- Ikuspuntu ludiko batetik bideratuta: jolasak, abestiak, ipuinak, eskulanak, tailer tematikoak.



LH 3-6

- Ahozketasuna eta idazmena
- Ikuspuntu ludiko batetik bideratuta: (Sukaldaritza tailerra, antzerkia), eskulanak, kultura britainikoa, abestiak, komikia, egunkaria.



mondragonLingua
formación/prestakuntza/training

INGELES

DBH

BATXI



- Ziurtagiri ofizialak lortzera bideratutako ikastaro akademikoa.
- Hiruhilabeteroko ebaluazioa eta txosten informatiboak familientzat.
- Talde txikiak, hasierako mailakatze proba bidez orekatuak.

SPEAKING

- Ikasleen ahozko komunikazioa modu atsegin eta lasaian errazteko diseinatuta daude. Hainbat jarduera-mota daude, hala nola eztabaidak, jokoak, elkarrizketak eta role-playak, askotariko gaiei buruzkoak eta beren interesekin lotutakoak.
- Jarraipen-txostena bidaltzen da hiru hilean behin.

EUSKARA C1 AZTERKETA

- HABEren C1 mailako euskara azterketak prestatzeko ikastaroa. Ikastaroak izaera ofiziala eta homologatua izango du. Eskolak ikastolan bertan emango dira, astean bi egunetan, eguneroko klaseak amaitu ondoren. Ikaslearen jarraipenaren berri aldiro-aldiro emango da. Gainera, ikastolako azterketa garaian, ikastaroa eten egingo da ikasleak arreta osoa ikastolako azterketetan jar dezan.
- Euskal Autonomia Erkidegoan azterketa egin eta gainditzen dutenei, ikastaroaren matrikula-sariaren zati bat itzuliko die HABEK.
- Ikastaro honetan, besteak beste, euskara maila egiaztatzeko azterketaren prozedura, mekanika eta arreta berezia eskatzen duten atalak landuko dira:
 - Irakurgaiak
 - Entzurgaiak
 - Idazlanak (luzeak eta laburrak)
 - Sinonimoak
 - Berridazketak
 - Ahozko azalpenak

